

EDT 5

TOPAKETA ENCUENTRO

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA
DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD



IRAILAK 5 - 6 - 7 DE SEPTIEMBRE

TABAKALERA. DONOSTIA.

EUS EDT, dantza, terapia, mugimendu eta osasunari buruzko topaketa hauek, bosgarren urtez jarraian, ikasturte hasieran proposatu ditugu, zainketarako tresnak eta formatuak eskaintzeko asmoz.

Entzuteko gune bat izatea nahi dugu, mugimenduan eta behaketan oinarrituta gure gorputzak egoera onean mantenduko dituzten metodologiei buruzko dibulgazio-gune bat.

Oso beharrezkotzat jotzen dugu barne-entzuketa zainketa horiek sustatzeko, azpimarratzeko eta artatzeko.

Denbora eskaini nahi diogu "zaintzearen" kontzeptuari, eta, horrela, dantzaren sektore profesionalerako jardunbide egokiak sortu nahi ditugu, hori funtsezkoa baita lanbide osasuntsu eta indartsu baterako.

Lan-esparru komunitario eta zeharkakoa eraikitzea antzeko sektoreetako profesionalekin, hala nola fisioterapia, psikologia, psikoterapia eta/edo nutrizioa.

Oraingoan, interes berezia dugu talde-ikerketak sustatzeko, metodologiak elkarrekin sortzeko, esperientzia pertsonala eta talde-esperientzia balioztatuz.

ES Estos encuentros EDT, de danza, terapia, movimiento y salud ya en su quinto año consecutivo, vienen propuestos a principios de curso con la idea de proporcionar herramientas y formatos de cuidados.

Queremos que sea un espacio de escucha, de divulgación sobre metodologías que mantengan en un buen estado nuestros cuerpos desde el movimiento y la observación.

Consideramos muy necesaria la escucha interna para fomentar, enfatizar y atender estos cuidados.

Queremos dedicar tiempo al concepto de "cuidar" y así generar buenas prácticas para el sector profesional de la danza, algo clave para una profesión sana y fuerte.

Construir un marco de trabajo comunitario y transversal con otras profesionales de sectores afines como la fisioterapia, psicología, psicoterapia y/o la nutrición.

En esta ocasión tenemos especial interés en fomentar la investigación grupal para co-crear metodologías a través de la validación de la experiencia personal y grupal.

EDT 5 TOPAKETA ENCUENTRO

ADDE
DANTZA

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA
DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD

IRAILAK 5 - 6 - 7. TABAKALERA. DONOSTIA

ostirala
irailak

5

- 15.30 Ateen irekiera
- 16.00 - 17.00 Ongi etorria eta aurkezpena
"Zaintzearen gorpuztasuna"
Gidaria: **Alba Fernández**
Non: Platoa
- 17.00 - 19.30 1. Praktika. "Balizko imajinarioak"
Gidaria: **Inés Aubert**
Non: Platoa

doan,
aurretiko
izen-
ematea

larunbata
irailak

6

- 10.00 Ateen irekiera
- 10.15 - 11.15 Solasaldia. "Zaintza eta lanbidea"
Gidaria: **El Hervidero**
Non: Tailerra
- 11.30 - 14.00 2. Praktika. "Gorputz-adierazpena nork bere
burua ezagutzeko teknika gisa"
Gidaria: **Aitziber Eguskiza**
Non: Platoa
- 14.00 - 16.00 Etenaldia bazkaria
- 16.00 - 18.30 3. Praktika. "Kanpo-diziplina vs
barne-koherentzia"
Gidaria: **Sirah Badiola**
Non: Platoa

doan,
aurretiko
izen-
ematea

igandea
irailak

7

- 10.00 Ateen irekiera
- 10.15 - 13.45 4. Praktika. "PERLAK,
azaleratzen dena partekatu"
Gidaria: **Alba Fernández**
Non: Tailerra
- 13.45 - 14.15 Itxiera

EDT 5 TOPAKETA
ENCUENTRO

ADDE
DANTZA

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA
DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD

5 - 6 - 7 DE SEPTIEMBRE. TABAKALERA. DONOSTIA

5 viernes
de septiembre

- 15.30 Apertura de puertas
- De 16.00 a 17.00 Bienvenida y presentación
“La corporeidad de cuidar”
Guía: **Alba Fernández**
Dónde: Plató
- De 17.00 a 19.30 Práctica 1. **“Imaginarios Posibles”**
Guía: **Inés Aubert**
Dónde: Plató

gratuito,
inscripción
previa

6 sábado
de septiembre

- 10.00 Apertura de puertas
- De 10.15 a 11.15 Charla. **“Los cuidados y la profesión”**
Guía: **El Hervidero**
Dónde: Taller
- De 11.30 a 14.00 Práctica 2. **“Expresión corporal como
técnica de autoconocimiento”**
Guía: **Aitziber Eguskiza**
Dónde: Plató
- De 14.00 a 16.00 Descanso comida
- De 16.00 a 18.30 Práctica 3. **“Disciplina externa vs.
coherencia interna”**
Guía: **Sirah Badiola**
Dónde: Plató

gratuito,
inscripción
previa

7 domingo
de septiembre

- 10.00 Apertura de puertas
- De 10.15 a 13.45 Práctica 4. **“PERLAS,
compartir lo que emerge”**
Guía: **Alba Fernández**
Dónde: Taller
- De 13.45 a 14.15 Cierre

EUS Ongietorria eta aurkezpena “Zaintzearen gorpuztasuna”

Gaur, hizkuntza sinplifikatzeko eta globalizatzeko joera duen mundu honetan, etenaldi bat proposatzen dugu. Zaintzearen zentzu erreal eta figuratua behatzeko etena, eta gure gorputzei nola eragiten diegun ikusteko. Zaintzea hitza latineko cōgitāre-tik dator, eta “pentsatu” esan nahi du.

XVI. mendean, bere esanahia zabaldu egin zen, norbait edo zerbait artatzeko edo zaintzeko ekintza barne hartzeko. Aditz hau gogoetatik arretarantz, adimenetik gorputzerantz, pasa da.

Saio honetan, zaindu hitzean sakonduko dugu, bere gorpuztasuna eta ekintzarekin duen harremana aztertuz. Masajea gorputzaren memoria eta imaginario kolektiboa arakatzeko gailu gisa erabiliko dugu, gorputzarekin eta gorputzen artean joan-etorriko elkarriketa sustatuz. Elkarri entzutea eta behatzea izango dira gure aliatuak zaintza-praktikei buruzko jardunaldiei hasiera emateko, bai besteekiko, bai geure buruarekiko.

ES Bienvenida y presentación “La corporeidad de cuidar”

Hoy, en un mundo donde el lenguaje tiende a simplificarse y globalizarse, proponemos una pausa. Una pausa para observar el sentido real y figurado de cuidar, y cómo afecta a nuestros cuerpos y a la manera en que los accionamos. La palabra cuidar proviene del latín cōgitāre, que significa “pensar”.

En el siglo XVI, su significado se amplió para incluir la acción de atender o velar por alguien o algo. Este verbo ha transitado desde la reflexión hacia la atención, desde la mente hacia el cuerpo.

En esta sesión, ahondaremos en la palabra cuidar, explorando su corporeidad y su relación con la acción. Utilizaremos el masaje como dispositivo que permite explorar la memoria corporal y el imaginario colectivo, fomentando un diálogo de ida y vuelta con el cuerpo y entre cuerpos. La escucha y la observación serán nuestras aliadas para dar inicio a estas jornadas en torno a las prácticas de cuidado, tanto hacia las demás como hacia nosotras mismas.



EUS **ALBA FERNÁNDEZ** sortzailea, bitartekaria eta ikertzailea da. Bere praktikak arte bizietako bitartekaritza eta dantza, musika eta performanceko sorkuntza kolektiboa uztartzen ditu. Inklusiotik eta aniztasunetik kulturara iristeko moduak ikertzen eta sustatzen ditu, gorpuzkera, ibilbide eta identitate pluralak dituzten pertsonen arteko topaketa eta hausnarketarako espazioak sortuz.

ES **ALBA FERNÁNDEZ** es creadora, mediadora e investigadora. Su práctica cruza la mediación en artes vivas con la creación colectiva en danza, música y performance. Investiga y promueve formas de acceso a la cultura desde la inclusión y la diversidad, generando espacios de encuentro y reflexión entre personas con corporalidades, trayectorias e identidades plurales.

EUS 1. PRAKTIKA: “Balizko imaginarioak”

Praktika honetan “Balizko imaginarioak”-ekin egiten ari naizen lan eredu bat partekatuko dut, dantza komunitatearekin lotzeko beharretik abiatzen dena, mugimenduarekiko jakin-mina duten pertsonen, dantzarien, dantzaren ezagutza desberdinak dituzten pertsonen, belaunaldien artekoen, gaitasun desberdinak dituztenei zuzendutako tailer eta topaketetatik abiatuta, helburu izanik talde transgenerazional eta anitza sortzea.

Tailerren helburua da elkar zaintzeko espazio eta giro bat sortzea, elkarrekin nahastu eta elkarrengandik ikasi ahal izateko, entzutearekin, errespetuarekin eta enpatiarekin konektatzeko. Proposamenak mugimendua sentitzeko, hautemateko eta bizitzeko modu desberdinetara irekitzen du, elkarlaneko elkarrekintza bat sortuz, non pertsona guztiok elkarrengandik ikasten dugun.

Talde-sormenerako espazio eta aukera bat, garenaren berezitasunak eta sentsibilitateak esperimentatuz. Tailerren eta topaketen bidez, dantza sorkuntzaren inguruan komunitate inklusibo baten sorrera konbinatzen duen proposamena da. EDT 5. topaketa honetan, praktikotasunetik “Balizko imaginarioak” aktibatzeke modu hau partekatu ondoren, dantza, terapia eta osasunaren arteko harremanari buruzko hausnarketak eta kezkek partekatuko ditugu.

ES PRÁCTICA 1: “Imaginarios Posibles”

En esta práctica compartiré una forma de trabajo que llevo haciendo con “Imaginarios posibles” la cual parte de la necesidad de vincular la danza con la comunidad, a partir de talleres y encuentros que van dirigidos a curiosas y curiosos del movimiento, bailarines /bailarinas, personas con distintos conocimientos de la danza, intergeneracional, con capacidades diversas, teniendo como meta crear un grupo transgeneracional y diverso.

Los talleres procuran crear un espacio y un ambiente de cuidado mutuo donde puedan mezclarse y aprender unas de otras, conectar con la escucha, el respeto y la empatía. La propuesta procura una apertura a las distintas formas de sentir, percibir y vivir el movimiento, generando una interacción colaborativa desde donde todas las personas aprendemos unas de otras.

Un espacio y una oportunidad para co – crear, experimentando las particularidades y sensibilidades de lo que somos. Es una propuesta que combina la creación de una comunidad inclusiva alrededor de la creación de danza a través de los talleres, encuentros. En este 5º encuentro EDT después de compartir desde lo práctico esta forma de activar “Imaginarios Posibles” compartiremos reflexiones e inquietudes de la relación danza, terapia y salud.



EUS **INÉS AUBERT.** Dantzaria eta sortzailea, (Costa Rica -Iruñea) bere ikerketa gorputzarekin, komunitatearekin, bihotzarekin, mugimenduaren esplorazioarekin eta arteen inguruko gogoetarekin lotuta dago.

Hainbat lengoaiatan ibili da eta dabil: argazkigintzan, koreografian, bitartekaritzan eta performancean. Rescolds kolektiboaren sortzailea izan zen, eta dantza komunitatearekin uztartuz hainbat sormen prozesu garatu zituen. Gaur egun, proiektu artistiko eta pedagogikoak garatzen ditu kolektibo ezberdinekin, taldean sortzeko espazio bat, “Balizko imaginarioak”, diseinatuz eta aktibatuz.

ES **INÉS AUBERT.** Bailarina y creadora, (Costa Rica -Pamplona) su investigación está relacionada con el cuerpo, la comunidad, el corazón, la exploración del movimiento y la reflexión en torno a las artes.

Ha transitado y sigue transitando por diferentes lenguajes: fotografía, coreografía, mediación y performance. Fundadora del colectivo Rescolds, con el que desarrolló diversos procesos creativos vinculando la danza con la comunidad. Actualmente desarrolla proyectos artísticos y pedagógicos con colectivos diversos, diseñando y activando “Imaginarios posibles”, un espacio para crear en colectivo.

EUS 1. SOLASALDIA: Zaintza eta lanbidea

Entzute aktiboa zaintzaren zero puntua da. Zaintzea ez da sistemaz desagertzea edo amore ematea: presentzia gorpuztua da, eustea eta eusten uztea. Kolektiboan, taldean, tribuan, inbaditu gabe laguntzearen artea praktikatzeko da, zaurgarritasunetik eta desiratik partekatzea.

Gorputza zaintzaren lurraldea da: aldatu egiten da, arnasa hartzen du, dardar egiten du, egokitu egiten da. Dantzan bezala, mugimendutik zaintzen dugu. Gure bizitza nomadetan, afektuek, lanek eta kontraesanek zeharkatzen dituztenetan, gaurkotzeko, oinarria ukitzeko, sinpletasunera itzultzeko espazioak behar ditugu: egunsenti bat ikusi, maskara askatu, eta benetan behar duguna aitortu. Zaintzak akordio argiak eta adostuak eskatzen ditu, hitzak eta ekintzak sostengatuak. Ardura propioa eskatzen du: esperientzia ere sortzen dugula onartzea. Batzuetan amets batzuk askatu behar dira sendo zapaltzeko, baina inoiz ez, inoiz ez, amets egiteari utzi.

ES CHARLA 1: Los cuidados y la profesión

La escucha activa es el punto cero del cuidado. Cuidar no es desaparecer ni transigir por sistema: es presencia encarnada, es sostener y dejarse sostener. En lo colectivo, en grupo, en tribu, se practica el arte de acompañar sin invadir, de compartir desde la vulnerabilidad y el deseo.

El cuerpo es territorio de cuidado: cambia, respira, tiembla, se adapta. Como en la danza, cuidamos desde el movimiento. En nuestras vidas nómadas, atravesadas por afectos, trabajos y contradicciones, necesitamos espacios donde actualizarnos, tocar base, volver a lo simple: contemplar un amanecer, soltar la máscara, y reconocer lo que realmente necesitamos. El cuidado exige acuerdos claros y consensuados, sostenidos por la palabra y por la acción. Requiere responsabilidad propia: aceptar que también creamos la experiencia. A veces hay que soltar algunos sueños para pisar firme, pero nunca, nunca, dejar de soñar.

EUS **EL HERVIDERO** 2022an sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoari lotutako dantza-profesionalen belaunaldien arteko topaketetarako gune seguru gisa.

Baratza Aretoan eta Dantzagunean egindako lehen topaketetatik sortu zen komunitatea egiteko eta fokua sektorearen giza zaintzan jartzeko beharra. Hainbat proposamen bultzatu ziren, hala nola Fanzine bat sortzea eta MASA topaketak ere egin ziren Gasteizen, Principal Antzokiaren laguntzarekin. 2024ko ekainean, proiektuak "Desiraren bideak" ekimenean parte hartu zuen, 2024ko Pasaiako Dantza Festibalean, eta Fanzinea aurkeztu zuen, sare aktibo gisa eta eboluzioan duen balioa berretsiz.

ES **EL HERVIDERO** nace en 2022 como espacio seguro para encuentros intergeneracionales de profesionales de la danza vinculados a la Comunidad Autónoma Vasca.

Desde los primeros encuentros en Sala Baratza y Dantzagunea, surgió la necesidad de hacer comunidad y poner el foco en el cuidado humano del sector. Se impulsaron propuestas, como la creación de un Fanzine y también se realizaron los encuentros MASA en Vitoria-Gasteiz con apoyo del Teatro Principal. En junio de 2024, el proyecto participó en "Caminos del deseo", en el Pasaiako Dantza Festibala 2024 presentando el Fanzine, reafirmando su valor como red activa y en evolución.



Encuentro El Hervidero Topaketa. Kampai Espazioa.

EUS 2. PRAKTIKA: "Gorputz-adierazpena nork bere burua ezagutzeko teknika gisa" (eta osasunaren sustatzea/ondoeza prebenitzea)

Adierazpen eta ahalduntze lan psiko-korporala egingo dugu. Desmekanizatzeko espazio bat eskaini nahi dizugu, zure gorputzarekin eta zure esentziarekin konektatzeko, zeure buruarekin eta taldearekin konektatzeko. Zure gorputzarekin eta zure sententzioekin konexio propioa lantzea interesatzen zait, baita entzutea eta talde-sentimendua ere. Erritmoa, gorputz-kontaktua eta zentzumenean miaketa erabiliko ditugu, segurtasun- eta konfiantza-espazio bat sortzeko. Horretarako, jolas-teknikekin eta gorputz-adierazpeneko jolasarekin esperimendatuko dugu, bere zabaltasun osoan. Bizipenezko lan baten bidez, askatzen den energia jabetzea lortu nahi dut, gorputzak eta sententzioek hitzaren, pentsamenduen eta/edo arazoiketa logiko-arrazionalaren aurrean protagonismoa hartzen duten espazio batean. Nire esperientzian, osasunaren alde egiten duen lana da, zentzurik zabalenean.

Solasaldia: Zer irudikatzen du lesio batek?, Nola egin aurre errepika ez dadin?, Zer da prebentzioa?.

ES PRÁCTICA 2: "Expresión corporal como técnica de autoconocimiento" (y promoción de la salud/prevenición de malestar)

Realizaremos un trabajo psico-corporal de expresión y de empoderamiento. Se trata de ofrecerte un espacio en el que desmecanizar para conectar con tu cuerpo y con tu esencia, conectar contigo misma y con el grupo. Me interesa trabajar la conexión propia con tu cuerpo y tus sensaciones, y también la escucha y el sentimiento grupal. Usaremos el ritmo, el contacto corporal y la exploración de los sentidos, para crear un espacio de seguridad y confianza. Para ello, experimentaremos con técnicas lúdicas y juego de expresión corporal, en toda su amplitud. A través de un trabajo vivencial, pretendo generar una toma de conciencia de la energía que se desprende en un espacio en el que el cuerpo y las sensaciones toman protagonismo ante la palabra, los pensamientos y/o el razonamiento lógico-racional. En mi experiencia, se trata de un trabajo que favorece la salud en su sentido más amplio.

Coloquio: ¿Qué representa una lesión?, ¿Cómo abordarla para que no se repita?, ¿Qué es la prevención?.



EUS **AITZIBER EGUSKIZAK** bi hamarkada baino gehiagoko esperientzia du taldeak dinamizatzen. Bere ibilbide profesionalak hainbat arlo jorratzen ditu: parte-hartze soziala eta giza eskubideak, banakako kontsultetan eta taldeekin egiten duen laguntza-lana, batez ere emakumeekin egiten duena. Graduak eta graduondoko ikasketak ditu psikologian eta zuzenbidean, ikasketa feministak eta generokoak, eta gorputz, adierazpen eta eszena lanekoak, hainbat eskola eta estilo pedagogikotakoak.

ES **AITZIBER EGUSKIZA** cuenta con una experiencia de más de dos décadas en dinamización de grupos. Su trayectoria profesional abarca campos desde la participación social y los derechos humanos, hasta el trabajo de acompañamiento en consulta individual y con grupos, sobre todo con mujeres. Cuenta con estudios de grado y postgrado en psicología y derecho, estudios feministas y de género y estudios de trabajo corporal, expresivo y escénico, de muy diversas escuelas y estilos pedagógicos.

EUS 3. PRAKTIKA: "Kanpo-diziplina vs barne-koherentzia"

Tailer honetan, nola bizi, mugitu eta sendatu behar dugun adierazten duten kanpo-erreferentzien eta gure gorputzean dagoen barne-jakituriaren arteko tentsioari buruzko azterketa somatikoa proposatzen dugu. Osasuna eta ongizatea adituen eta eredu idealen irizpidearen esku utzi dituen kultura batean bizi gara, askotan gorputz bakoitzaren berezitasunetik deskonektatuta. Gure barne seinaleak isilarazten ikasi dugu, emaitza unibertsalak agintzen dituzten formula orokorren alde.

Zer gertatuko litzateke gorputza denbora errealean entzuten hasiko bagina? Nola sentitzen da koherentzia gorputzean, eta nola desconexioa? Zer gertatzen da espero denaren ordeztu sentitzen eta behar dudanaren arabera gidatzeko baimena ematen badut?

Gai hauei buruz hausnartu eta gorputzera eramango ditugu Feldenkrais metodoan oinarritutako praktika baten bidez, barne egoeraren entzutea eta gure mugimenduen jatorria induz.

ES PRÁCTICA 3: "Disciplina externa vs. coherencia interna"

En este taller proponemos una exploración somática sobre la tensión entre las referencias externas que dictan cómo debemos vivir, movernos y sanarnos, y la sabiduría interna que reside en nuestro cuerpo. Vivimos en una cultura que ha delegado la salud y el bienestar al criterio de expertos y modelos ideales, muchas veces desconectados de la singularidad de cada cuerpo. Hemos aprendido a silenciar nuestras señales internas en favor de fórmulas generales que prometen resultados universales.

¿Qué pasaría si empezáramos a escuchar el cuerpo en tiempo real? ¿Cómo se siente la coherencia en el cuerpo, y cómo la desconexión? ¿Qué ocurre cuando me doy permiso para guiarme por lo que siento y necesito, en vez de por lo que se espera?

Reflexionaremos sobre estas cuestiones y las llevaremos al cuerpo a través de una práctica basada en el método Feldenkrais, afinando la escucha del estado interno y el origen de nuestros movimientos.



EUS **SIRAH BADIOLA** psikologoa da, Feldenkrais metodoaren irakaslea, terapeuta somatikoa, dantzari garaikidea eta Danza Presencia-ren sortzailea.

Kontzientziaren eta mugimenduaren arteko harremana aztertzen du, eta gorputz-pertzepzioaren hedapenak izakiaren benetako adierazpena nola bultzatzen duen, keinuaz edo dantzaz harago.

ES **SIRAH BADIOLA** es psicóloga, instructora del método Feldenkrais, terapeuta somática, bailarina contemporánea y creadora de Danza Presencia.

Estudia la relación entre conciencia y movimiento, y cómo la expansión de la percepción corporal potencia la expresión auténtica del ser, más allá del gesto o la danza.

EUS 4. PRAKTIKA. “PERLAK, azaleratzen dena partekatu”

Perlak bigunean sortzen dira, barrualdean, eta denborarekin zerbait solido bihurtzen dira, distiratsu, baliotsu. Horrela ulertzen ditugu gure esperientziak ere: zalantzatik, desiratik eta jakintzatik sortutako perlak bezala.

Topaketa hau perla horiek partekatzeko gonbidapena da. Geldiaraztea, kokatzea eta zaintzaren inguruko gure praktika, zalantza, desio eta metodologiei begiratzea proposatzen dugu. Gorputzen, galderen eta egiteko moduen gurutzaketa izango da. Perlak artikulatu, multzokatu eta eskainiko diren espazio bat, ez objektu bukatu gisa, baizik eta etorkizuneko erresonantziatarako hazi gisa.

ES PRÁCTICA 4. “PERLAS, compartir lo que emerge”

Las perlas se forman en lo blando, en el interior, y con el tiempo se transforman en algo sólido, se vuelven brillantes, valiosas. Así también entendemos nuestras experiencias: como perlas nacidas del tránsito por la duda, el deseo y el saber.

Este encuentro es una invitación a compartir esas perlas. Proponemos detenernos, situarnos y mirar nuestras propias prácticas, dudas, deseos y metodologías en torno al cuidado. Será un cruce de cuerpos, preguntas y formas de hacer. Un espacio donde las perlas se articulen, se agrupen y se ofrezcan, no como objetos terminados, sino como semillas para futuras resonancias.



Encuentro EDT Topaketa. 2022.

EUS EDT topaketak hasieratik bultzatu dituzte ADDEko hezkuntza batzordeko kide batzuek: **Nuria Perezek**, **Mikel Aristegui** eta **Eusebio Soriak**. Gainera, Valentziako APDCV elkarteko kide **Alicia Herrero**ren laguntza izan dute.

Hainbat profesional gonbidatu ditugu praktikak eta hitzaldiak egitera, partekatzeko eta hausnartzeko. Gainera, dantzaren eta osasunaren, zainketen eta mugimenduaren inguruko eztabaida-taldeak sortu ditugu, era guztietako gorputzetarako eta gaitasun fisiko eta intelektualetarako.

EDT topaketetan, pertsonalki zein profesionalki hazteko aukera eman diguten esperientziak, ezagutzak eta ikasketak partekatu ditugu. Hasieratik, gure helburua elkarrizketarako eta lankidetzarako espazio horizontal bat sustatzea izan da, eta oso eskertuta gaude ibilbide honetan elkarrekin lortu dugun guztiagatik.

ES Los encuentros EDT han sido impulsados desde sus inicios por algunos miembros de la comisión de educación de ADDE: **Nuria Pérez**, **Mikel Aristegui** y **Eusebio Soria**. Además, han contado con la colaboración de **Alicia Herrero**, y la asociación APDCV de Valencia.

Hemos invitado a realizar prácticas y charlas a distintas profesionales para compartir y reflexionar además de haber creado fóruns de discusiones en torno a la danza y la salud, los cuidados y el movimiento para todo tipo de cuerpos y capacidades físicas e intelectuales.

En los encuentros EDT, hemos compartido experiencias, conocimientos y aprendizajes que nos han permitido crecer tanto personal como profesionalmente. Desde el inicio, nuestro objetivo ha sido fomentar un espacio de diálogo y colaboración horizontal, y estamos muy agradecidos por todo lo que hemos logrado juntos en este recorrido.

PREZIOAK eta IZEN-EMATEAK

4 praktika: 20€ ADDE eta EAB bazkideak -
50€ ez bazkideak

3 praktika: 15€ ADDE eta EAB bazkideak -
40€ ez bazkideak

2 praktika: 10€ ADDE eta EAB bazkideak -
25€ ez bazkideak

praktika 1: 5 € ADDE eta EAB bazkideak -
15€ ez bazkideak

Solasaldiak

Sarrera librea, aldez aurreko izena emanda.

Izen-emateak uztailaren 2tik 28ra

info@addedantza.org helbidean.

Beharrezkoa da inskripzioan adieraztea zein praktika/
solasalditan ematen duzun izena.

PRECIOS e INSCRIPCIONES

4 prácticas: 20€ personas asociadas a ADDE y EAB -
50€ no socias

3 prácticas: 15€ personas asociadas a ADDE y EAB -
40€ no socias

2 prácticas: 10€ personas asociadas a ADDE y EAB -
25€ no socias

1 práctica: 5€ personas asociadas a ADDE y EAB -
15€ no socias

Charlas

Entrada libre con inscripción previa.

Inscripciones del 2 al 28 de julio en

info@addedantza.org

Necesario indicar en la inscripción las prácticas /
charlas a las que te inscribes.

EDT 5 TOPAKETA ENCUENTRO

DANTZA, TERAPIA, MUGIMENDUA ETA OSASUNA
DANZA, TERAPIA, MOVIMIENTO Y SALUD

ADDE
DANTZA

**EDT 5 Topaketak, honakoen
laguntzarekin egiten dira //**

**Los encuentros EDT 5 se
realizan con la ayuda de**

